



**FIRST CERTIFICATE (FCE) ETA CAMBRIDGE  
ADVANCED (CAE) AZTERKETAK PRESTATZEKO  
IKASTAROA**

**2015ean %90 baino gehiagok gainditu zuen!**

## BRIGHTON:

**ADINA:** Gutxienez, 16 urte.

**IKASTAROAREN DATAK: FCE:** uztailaren 3tik 31ra. Azterketaren data, uztailaren 28a.

**CAE:** ekainaren 26tik uztailaren 24ra. Azterketaren data, uztailaren 21a.

**IRTEERA:** Bilbotik. Kontsultatu beste toki batzuetatik dauden irteerak.

### HIRIA

**Brighton** hiri kosmopolita da, 250.000 biztanle inguru ditu eta ikasle-bizitza handia, bere bi unibertsitateei esker. Ingalaterra hegoaldeko kostaldean dago, Sussexeko eskualde zoragarrian, Londonetik ordubetera.

### ESKOLA

1962an sortua, itsasotik gertu eta hiriaren erdian dago. 30 ikasgela ditu, areto multimedia handia ordenagailuekin eta interneterako sarbide librearekin, ikasketa-zentroa mota guztietako materialekin, liburutegia...

### IKASTAROAK, JARDUERAK ETA IBILALDIAK

Astean 30 klase ematen dira; ordutegia, 9:00etatik 12:30era eta 13:30etik 15:00etara, astelehenetik ostiralera, gutxi gorabehera. Gela bakoitzean gehienez 12 ikasle egoten dira.

- Azterketen praktikak: idatziz eta ahoz.
- Banako tutoretza irakaslearekin, laguntza eta aholkuak emateko.
- Azterketaren matrikula barne.

Eskolak gizarte-programa bat du, ikasleentzako hautazko jarduerekin.

Programan sartuta dago astean egun osoko ibilaldi bat, asteburuetan, esaterako: London, Oxford, Cambridge, Portsmouth, Bath...

### OSTATATZEA

Eskolak kontu handiz aukeratutako familietan. Banako logelan eta mantenu erdian, hau da, gosalduta eta afaldu familiar egiten dute aste osoan. Eguerdiko jatordua ez dago barne. Eskolaren inguruan kafetegi eta denda ugari dago, jateko zerbait erosi ahal izateko.

Familiatik eskolara joateko **tokiko garraioa**, horrelakorik behar izanez gero, ez dago sartuta.



**INGALATERRAKO ESKOLARIK ONENETAKO BAT,  
HIRI ZORAGARRIA!**